

**ARROSPIDETARRAK:
PERTSONA, MEDIKU, EUSKALDUN...
EREDUGARRIAK**

*Ama Miren muxikarrari
eta biru mediku bikaini:
arreba Arantza, arreba Garbiñe eta iloba Aingeruri*

Bartzelonako *Euzkadi* egunkaria miatzen

Irakurleak dakienez, *Euzkadi* egunkaria 1913ko otsailaren 1ean kaleratu zen Bilbon, eta frankistak Bizkaiko hiriburuan sartu baino ordu batzuk lehenago, 1937ko ekainaren 18an, geratu zen etenda 24 urteko informazio-proiektua. Kontua da, *Euzkadi* urte bereko abenduaren 7an berragertu zela Bartzelona errepublikarrean eta bertan iraun zuela 1939ko urtarrilaren 18ra arte. Hamalau hilabetez argitaratu zen, beraz, *Euzkadi* Bartzelonan.

Hain zuzen ere, Katalunian argitaratutako zenbakiak kontsultatzen dihardugula, Ipar Euskal Herritik, Lapurdiko Geta-riatik, X. sinatzen duen kolaboratzailea¹ kezkatuta agertzen da Jon Arrospide medikuaren egoeraz: “Gure adizkide on-ona dan Arrospide tar Jon osatzalle ospetsuba”. Izan ere, X.-k ja-

¹ “Gethary-Lapurditik Euzkadi ko izparrak”, *Euzkadi*, 1938-11-27, 4. Al-dian behin, idazten zuen X.-k Bartzelonako *Euzkadi*n, eta gai sozialak, erlijiosoak, politikoak... erabiltzen zituen. Errefuxiatua, idazlea, bizkaitarra, andrazkoa?...

kin berri duenez, mediku laguna atxilotuta dago Bilbon, eta ez, antza, oso egoera onean: aurpegi zurbila, gorputz mehe-mehea... Era berean, sarri ere sarri, oso era lotsagarrian darabilte frankistek medikua Bilboko kaleetan barna: guardia zibil bi zaintzale dituela faxisten etxeetako gaixoak sendatzera joanarazi, eta, lana eginda, buelta kartzelara, txapel okerrak albo banatan dituela. Hori dela-eta, sentimenduz beteriko aieru bat jalgiko da artikulugilearen gogo-lumetatik: “¡Arrospide tar Jon gaxua!”. Horrek guztiak X-ren nortasunaz interesatzera eraman gintuen; baina, batez ere, Arrospide jaunaren pertsona eta mundua ezagutzeko egin zigun dei.

Muxika herrira garamatzate bide guztiek

Esan beharra dago, han-hor-hemen sakabanatuta idoro ditzakegun aipu eta iruzkinetan, sarri askotan, nahastu egiten direla Juan Bautista Arrospide Omagojeaskoa (Juan aita, busturiarra, medikua) eta Juan Maria Arrospide Basabe² (Jon semea, muxikarra, medikua hau ere), eta datuen dantza (jaioterriak, jaiotegunak, ikasketak, lanak...) etengabea dela³. Arros-pidetarren munduarekin topo egitean, atoa agertu ziren Muxika herria, Astelarra, Ariatza, Zabale... auzoak: Enbeitatarren mundua eta Bizkaiko bertsolaritzaren kabi garrantzitsuenetako bat. Gure ama zena inguru horretakoa izanik, Zabaleko Aurrekoetxe baserrian jaioa, posible izango zen Don Juanen laguntzarekin mundura etorri izana edota haren artak eta atentzioa inoiz jasotzea. Horrek guztiak gehiago piztu zigun

² Guk, argitasunaren mesedetan, aita izendatzeko *Juan* (Don Juan, Muxikako herritarrentzat) erabiliko dugu, *Jon* semearentzat gordeta.

³ Hain zaharrak ez diren aipamen batzuetan ere, behin eta berriro errepikatzen dira akatsok. Bide beretik, Santi Onaindia karmeldar handiak eta euskal literaturaren nondik norakoak gutxik bezala jorratu zituenak ere, beren-beregi aitortzen zuen nahas-mahas hori, baita obra kanoniko antzeko batzuetan ere: “Nire *Milla euskal olerki eder* liburuak –baita San Martín-en *Escritores euskéricos*’ek ere– gaizki dakar busturiar onen bigarren abizena; ‘Basabe’, bere emaztearena duzu”.

interesa, eta datuak batzeari lotu gintzaizkion, gogotsu lotu ere. Esan behar dut, Don Juanen bizitzari buruzko zenbait datu eta jakingarri lortzeko, Balendin Enbeitak idatzitako *Bizitzaren joanean* liburua laguntza handikoa izan dugula, bertan kapitulu bat opesten baitio Busturitik Muxikara joandako mediku jatorrari⁴. Goazen bada, Juan eta Jon aita-semeen munduan sartzen merezi du-eta bien artean hartzen duten mendea (1869-1965) ezagutzea.

Juan Arrospide Omagojeaskoa (1869-1952)

Don Juan –hala zeritzoten muxikarrek, errespetuz– 1869ko urriaren 7an jaio zen Busturia herriko Eskibil baserrian. Lehenengo ikasketak herrian eginda, batxilergoa amaitu, eta, 1890ean, Zaragoza aldera joan zen medikuntza ikastera. Medikuko ikasketak 1897an burutu zituen, eta handik hiru urtetsura, 1900. urteko otsailaren 3an, Juana Basabe gernikarrarekin ezkondu zen, eta urte bereko azaroan jaio zitzaizen Jon semea, gerora mediku ospetsua izan zena. Itziar alabatxoaren etorrerak ez zuen gutxiago alaituko Arrospide-Basabetarren supazterra. Juana irakaslea zen eta prest egon zen beti senarrari laguntzeko bisitaldietan eta artatze-lanetan. Izan ere, Muxikako Astelarra euren auzotik kilometroetara joan behar izaten zuen sarri, bideak gehienetan dena-beharrekoak zirela. Auto txiki-txo bat zeukan Don Juanek –halaxe aipatzen du beti Balendinek mediku busturiarra– Astelarra auzotik urrun zeuden baserri eta etxeetara arinago eta erosoago joan ahal izateko, baina frankistek, etxeko gauza askorekin batera, autotxoa ere kendu zioten. Hori mediku bokaziodun eta aktibo batentzat galera handia zen, Arrospide jaunak Muxika eta Ibarruri herri zabalak baitzeuzkan bere gain hartuta:

⁴ “Don Juan Arrospide”, in Enbeita, Balendin: *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986, 102-122.


“Gure Don Juan gaixoen arazoetan nagirik bakoa zan. Behin dei egin ezkerro, laster joango zan gaixoa egoan tokira. Ez eukan gau ez egunik ez eguraldi txarrik. Ondo ez egoala ikusten baeban, ez zan berriro dei egin beharrik izaten. Gaixoaren ona ikusi arte jarraituko eutson eta txiro samarra bazan, ulmadapean sariren bat itxi barik ez zan aldenduko”⁵.

50 bat urtez jardun zuen Don Juanek Muxika-Ibarrurietan, eta gaixo eta behartsuen alde eginiko lan eskergaz aparte, bertan erabat integratuta egonak aukera parebakoa eman zion herriokin bat egiteko, eta baita hango herritarren ekimen, proiektu eta ametsetan parte hartzeko ere.

Arlo politikoa, esan behar da Sabino Aranaren lagun mina izan zela Don Juan Arrospide, eta EAJren lehenengo urteetan parte-hartze aktiboa izan zuela busturiarrak. Balendin Enbeitak dioskunez, gutun trukaketa handia izan zuten, eta horren erakusgarritzat Sabino Aranak Juan Arrospideri 1900eko urtaririlaren 13an Sukarrietatik Muxikara bidalitakoa dakar aipatutako liburuan⁶. Balendinek dioenez, XX. mendearen lehen herenean, Muxika aldean hiru alderdi nagusi zeuden: karlistak eta monarkikoak (espainolistak) eta bizkaitarrak (nazionalistak). Kontua da, espainolistak nagusitzen zirela hauteskundeeetan eta horrek nazionalisten erantzuna izan zuela handik lasterrera. Abertzaletasunaren zabalpenean eta indartzean lan handi ere handia egin zuen Don Juanek, eta hamabi herritar jator alboan zituela ipini zizkion herriko abertzaletasunari lehenengo zimendu sendoak. Ahalegin sendo horrek nazionalisten garaipena ekarri zuen laster, ohiko joerak irauliz: “Don Juan eta hamabi apostoluei esker, herriak abertzaletasun aldera gupril handia hartu eban”, diosku Balendinek.

⁵ Ibidem, 103-105.

⁶ Sabino Arana Goiri hil zenean (1903-11-25), komizio bat eratu zen haren omenez zenbait ekitaldi egiteko. Talde horren burua Carlos de Orue izan zen eta Juan Arrospide (Muxika) taldekideen artean agertzen da (*Patria*, 1903-11-29, 7).



*"Muxikan, lenengoz, E.A.J. sortu eben gizonak auetxek izan ziran"*⁷

⁷ Don Juanen "apostoluen" artean Zabaleko Aurrekoetxe baserriko gure aitita Hilario Irigoyen agertzen da, gure ama Mirenen aita.

1933ko uztailaren 10ean, Muxika herriak omenaldi berezi bat egin zion Juan Arrosperideri bertako Arana Goiri⁷tar Sabin izeneko enparantzan. Balendin Enbeitaren hitzetan, 34 ikurrin ikusten ziren plazan: batzokietakoak, mendigoizaleenak, Emakume Abertzale Batzakoak (EAB)... Meza nagusiaren ondoren, herri bazkariaren amaieran Kepa Enbeita *Urretxindorrak* eskaini zizkion omen-berbak: “Eta nor hobeto Kepa baino? Don Juanek abertzaletua zan eta urte askoan alkarregaz ibiliak eta anaiak baizen maite ziranak”⁸.



*Muxikako gerra aurreko jeltzaleak*⁹

⁸ *Bizitzaren joanean*, 112.

⁹ Argazki biok Mari Puri Irigoien lehengusinari zor dizkiogu.

Hitzaldi sentitu baten ondoren, Urretxindorrek Zaldunbide margolari gernikarrak eginiko margolan karga sinbolikoz beteriko bat opetsi zion medikuari. Urretxindorraren hitzaldiaren zatitxo bat dakargu lerrootara:

“Sabin ez genduan erdiz-erdizko gizona izan, gizon osoa baino. Abertzale bezela neurri bagea. Jon Arrospide, bere lehenengoetariko ikasle eta lagun, Sabinen irudi bera dogu: gizon, abertzale eta langile nagirik bagea arazo guztietan. Hemen eskeintzen deusagun Zaldunbiden margo honetan baserri bat ikusten dogu, bere etarte zabalagaz: Arrospide baserritarra dala erakusten. Ondoan eleiza: Kistar bezela maite daua la agertzen. Eleizatik hurrean hareitz eder bat, Gernikako Zugaitzaren irudi, Askatasuna maite daua la esaten. Margoaren hegalean armarría: Arrospiden abertzaletasunaren beroa, ase ezinezko egarria abesten, bere askatasuna noiz ikusiko. Eta azkenez, hiru margodun ikurrina: Arrospiden bihotzaren mai-teena, itxaropenaren babesa”¹⁰.

Don Juanen erantzunean ere, oso berba sentituak entzun ziren, bihotzetik harakoak, eta plazan zeuden asko eta askoren masailetatik behera emoziozko negar-arpuluak irristatu ziren, hain zen maitatua herriko mediku jatorra. Busturiarrak beren-beregi aipatu zuen abertzaletasunaren zabalkundean emakumezkoek zeukaten betebeharrak garrantzitsuak:

“Ez dakit gaur egiten deustazuen omenaldi hau Muxika eta beste herrietatik etorri zaren guztiori hau zelan eskertu. [...] Orain 39 urte edegi ziran lehenengo euskaldun batzokiaren ateak. Handik gitxira, neu ikurrina jartzen nengoela,

¹⁰ *Bizitzaren joanean*, 113.

bidean joan emakume batek, geratu eta ikurrinari mosu bat emon eutsen. Sabineri esan neutsanean, itxaropentsu erantzun eustan: *Emakumeak Aberria maitatzen hasten badira, laster askatuko gara.*

Gaur emakumeak askatasun bideetan aurrera doaz. Goralpenik haundiena heurak merezi dabe”¹¹.

Juan Arrospide eta Kepa Enbeita: lagun min, bidaide, gogaide...

Daborduko, aipatuta ditugu Juan Arrospide eta Kepa Enbeitaren arteko adiskidetasuna baita hurbiltasun pertsonala ere: bitzuak, baserritarrak; biak ahala biak, euskaldun eta bertso-munduari atxikiak; bi-biak, abertzale sutsuak... Mediku modura ere, asko lagundu zion Arrospidek osasun ahuleko zen Urretxindorrari. Mundu konpartitu aberats bat zeukaten herriko medikuak eta herriko bertsolaririk ospetsuenak. Hori dela-eta, abertzaletasunaren zabalkundean, sarri ere sarri, elkarrekin ibili zitzaizkigun mitin, hitzaldi eta elkarretaratze nazionalistetan –Arrospide hitzez eta Urretxindorra bertsoz–, euskalduntasuna eta abertzaletasuna hauspotzen XX. mendearen lehenengo herenean. Baina hemen aipatu beharra dago Arrospidek Kepa Enbeitaren bilakaera ideologikoan eta bertsogintzan izan zuen erabateko eragina. Baina hori Kirikiñok eta Kepak berak azalduko digute ondoen.

1922ko urriaren 4an omenaldi handi bat egin zitzaion Kepa Enbeitari Eibarren. Ebaristo Bustintza *Kirikiño* ere Eibarreratu zen igande horretan, eta hurrengo asteazkenean “Gixon ixil bat aitatu” izeneko artikulua argitaratu zuen *Euzkadin*. Artikulua luzea da. Kepa Enbeita goralduta, haren anaia Imanolen bertso bikainak eta eibartarrek banatutako bertsopaper batzuen inguruko komentarioak egiten ditu, baita eibartarren euskalduntasun irmoa goraipatu ere. Baina guretzat, kasuon,

¹¹ Ibidem, 114.

garrantzitsuena Urretxindorraren eta Juan Arrospideren arteko harremanak dira, gorago aipatutako “gixon ixil” hori Arrospide medikua baita:

“Eibarr´en, lengo igandian, gixon bat, gixon ixil bat, bururik agertzen atsegiñik eztaukon gixon apal bat ikusi neban, pozarren ebillala Enbeita´tar Kepa´ri egiten jakon aintzalbene-ko jai guztijetan, eta neure artian bein esan neban:

–Or abil danen artian, eta iñok etxakik Enbeita Jel-oleskari ixtatiaz euk daukuala gure eskarraren artuen andija.

Bai, irakurliek, gixon orrexen onuak edo kontsejuak ipiñi eban Enbeita bere gaxtetan Jel´entzako bakarrik oleskari ixateko bidian. Orrexegaitik, gixon ori aitatu biar litxakela deritxogu, berari au egiñaz atsakabia emongo dautsogun arren.

Gixon ori da Muxika´ko osalari ta abertzale zar bikain Arrospide´tar Jon. Berau be olerkarija ixan zan bere gaste-al-ditan. Itz-neurtu ederrak daukoz argitalduta Sabin´en izparrin-gijetan. Lenengotariko abertzalia, zintzua ta esangiña, biargiña ta ixilla. [...]

Buakijo, ba, Arrospide´ri abertzalioz eskarra, eta artu bei gaur dagigun aitamena, zuzeneko gauzia da-ta”¹².


¹² Bustintza, Ebaristo *Kirikiño*: Gixon ixil bat aitatu”, *Euzkadi*, 1922-10-04, 1.



*Juan Arrospe, eta Kepa Enbeita*¹³

¹³ “Bi gizon urregorritzko”, diosku Balendin Enbeitak (*Bizitzaren joanean*, 103).

Hurrengo astean, Kirikiñok *Euzkadin* argitaratutako artikuluari Don Juanek eta Kepa Enbeitak erantzun zioten: Juan Arrospidek hiru bertso bidalita, eta Urretxindorrak samurtasunez eta esker oneko hitzez beteriko artikulua bikain baten birtartez. Ikus ditzagun Arrospideren bertso egoki eta delikatuak, bertsolari- olerkari-ezpala zeukan-eta, gorago Kirikiñok gaztigatu bezala¹⁴:



¹⁴ Arrospide, Jon: "Kirikiño'ri", *Euzkadi*, 1922-10-10, 1.

Biharamunean, urriak 11, *Euzkadik* Kepa Enbeitaren artikulua argitaratzen du, lehenengo orrialdeko “Egunekua” atalean. Kepa Enbeitak azpimarratu egiten du Kirikiñok aurreko astean esandakoa, baina elementu berri bat gehitzen du, hots, bertsoak egiteko moduan, ahapaldiak tolesteko eran, hizkuntza jasoagoa erabiltzeko erabakian Arrospide jaunak izan zuen eragin zuzena. Ideologian ez eze, bertsogintzan ere, erabakigarriak izan zirelako lagunaren aholkuak. Arrospide barik, se-guru asko, historiak ezagutu duen Urretxindorra beste bertso-lari bat izango zen, bikaina, apartekoa... betiere; baina beste kera batekoa¹⁵:

“*Aitatu biar dan bat*. Idazkun auxe burutzat ebala Urrilla-4'-ko *Euzkadi*-n Kirikiñok idazte-eban beste gauza batzuen artian, Arrospide´tar Jon, Muxika´ko osalarijak ipiñi ebala Kepa bere gastetan Jel´entzako bakarrik oleskari ixateko bidian, eta Kirikiñok iñuana egi-egija dan lez, iñok ezpayan euki ez-tayan egi uts ori, ementxe *Euzkadi*-n agiriyan esan gura dot. [...]

Nik gastetxutatik neukan zaletasun andija oleskigiñen ekiteko, eta naiñoz ta naiñun beti gertu egoten nintzan onetarako; trabenarik-trabena erabilten nenduen, baina nik erabilten neban euzkerea... etzan euzkerea, eta berbetia be sarritan... ederregija ez.

Arrospide mutil gaste bikaña gure errira osalari etorri zan, eta au nigaz aizkide egin zan, eta neu beragaz bardin; Arrospide abertzale andija zan, baña ni... edozer, euzkelerri-maitia bai, baña enekijan zer zen abertzale ixatia eta gure aberri bakarra Euzkadi danik bez. Arrospidek baña polito-polito esan eustezan gure aberrija zein zan, gu len zer giñan, gaur zer gauran, zer ixateko eskubidea geukan, Sabin nor zan, zelakua

¹⁵ “Kepa izan zan bertsolaritza tabernatik atara ebana, Bertsoari merezi dauan jitea emon eutsona, esan nahi dot. Ondoren, Basarri izan dogu gure aitaren eskolari jarraitu deutsona, Eskertzekoa da berak egin dauan lana, eta bakoitzari berea emon behar jako”, *Bizitzaren joanean*, 127.

zan, zelako asmoak eukazan¹⁶, euzko-oleskarijak antziña-an-tziña zelakuak ixan ziran, orduan zer egite-eben, geruago oleskarijak oitura onak galdu ebezela, aberri-oleskarijak ixate-tik *trabena-bertsolarijak* ixatera biurturik, eta abar.

Oneik gauza gustiok esanda aurpegira begiratzen eustan eta azkenik esate-eustan: *Ik Kepa eure anayakin eta abar emetik aurrera euzkera garbijen bertsuak eiten ekin bihar dautsek; lenenguan gatx ixango yak ori eitie, baña bakarrik aguanian eta anayakin etxian eta olantxe ekijok illebeta in-guruen eta gero erre-errez eingok edonun*.

¡Esan eta egin!”¹⁷.

Gerora, biok biotara hasi ziren auzo-herri-hirietan hitzaldi eta mitinetan nazionalismo berriaren hazia ereiten, bien arte-ko adiskidetasuna eta anaitasuna sendotuz zihoan bitartean. Artikuluaren amaieran, Urretxindorrak diosku lerro horietan dioena jende askorekin komentatuta zeukala, baita Kirikiñore-kin ere, “eta onek Euzkadi’n atara daun ezker... neuk egiz-tutia bidezkoa dala eretxi dautsot, eta zuk Arrospide nire aberkide ta lagun maite orrek azketsi [barkatu] idazki onegaz zauritu bazaitut, ba alik gitxien zeu alegindurik, egia utsak ba-karrik esaten alegindu naz”¹⁸.

Handik urte batzuetara, Kepa Enbeitaren osasunak behera-kada handi bat izan zuen, eta horretan ere errime lagundu zion busturiarrak muxikarrari. Horren guztiaren berri, Don

¹⁶ “Don Juanek aita sarri eroaten eban Gernikako Batzar-Tokira, Zuhaitz zaharraren txokora, hemengo liburuak arakatu eta asaba zaharrak zelan jo-katzen eben ikustera, gero Euskadin zehar bertsoz abestu egian”, Idem.

¹⁷ Enbeita, Kepa: “Enbeita’k bere maixuari”, *Euzkadi*, 1922-10-11, 1. Nahiz eta testura aipamen luzetxoak ekarri dugun, merezi du artikulua oso-osorik irakurtzea, Enbeita xalo bezain handi bat agertzen baita lerrootan zehar.

¹⁸ Idem.

Juan hil eta handik lasterrera, *Abandotarrak* eman zigun Guatemalan argitaratzen zen *Euzko-Gogoa* aldizkarian:

“Aldi aretan, 1929´garren urtia zala, Enbeita´tar Kepa oso gexorik eguan, iñok ezekijala, berak ezebalako esaten. Baña Arrozpide´k ondo ekijan eta orduban guri “Euzkeltzale-Bazkuna”koai idazki bat zuzendu euskun esanaz Enbeita il-zorijan eguala, antziñeko eztarri-idorrberija edo gaitzepela eukalako. Eta Enbeita´ren eztarri ederr-bikaña gordetzeko ta osatzeko, biarrezko-biarrezkua zala bere ogibidetik aldendu-erazotia ta atsedendu-erazotia. Enbeita otzaragillia zan eta ezuak kalte aundija egiten eutson. Berialaxe, Arrozpide´ren deyarri erantzunik, “Euzkadi” egunerokuak eta “Euzkerea” aldizkingijak arrpide bana idegi eben. Euzkadi´ko erri guztijetatik txindi ugarija etorrtzen asi zan, eta onelan Enbeita´k bere ogibidia laga al-ixan eban. Eta Enbeita osatu zan eta abestuten jarraitu zan uririk-uri ta baserririk baserri. Ordutik Muxika´ko «urre-txindorra» esaten geutson”¹⁹.

Kepa Enbeitak “Ongillei eskarra” bertso-sortaren bitartez adierazi zien bere esker ona, laguntza emandako guzti-guztiei²⁰.

Juan Arrozpide, idazle

Aipatua dugu Juan ArrosSpideren literatur zaletasuna, praktikara ere eraman zuena: “Itz-neurtu ederrak daukoz argitalduta” irakurri diogu gorago Kirikiñori. Pierre Xarriton lapurtar idazle oparoak, “Medikuak eta Euskal Literatura” gaia aztertzean, diosku, gure literaturaren historian, mende baldeko sendagileen artean lehen euskal idazlea dela, eta olerkari bikaina izan zela Muxikako mediku jatorra²¹. Aita Onaindiak ere berba

¹⁹ *Abandotarra*: “Arrozpide-tar Jon il yaku”, *Euzko-Gogoa*, 1952, 3/4, 49-50.

²⁰ Enbeita, Kepa: “Ongillei eskarra”, *Euzkadi*, 1929-12-26, 1.

²¹ Xarriton, Piarres: “Medikuak Euskal Literaturan”, *Euskalingua*, Mende balde Kultura Alkartea, 2008.

onak ditu Arrospide idazlearentzat, neurtitz beroak eho zituela azpimarratzen duelarik.

Bibliografian, zortzi bertso-sorta bildu ahal izan ditugu²². Lehenengo hirurak (1902-1904) Sabino Aranak fundaturiko *La Patria* astekarian argitaratuak. Laugarren sorta *Euzkadin* kaleratu zuen (1922), eta Balendin Enbeitaren *Bizitzaren joanean* liburuan hiru sorta agertzen dira, baina datarik gabeak. Azkena “Axular-Eguna” sorta saritua da.

1925eko irailaren 17an, Juan Arrospidek, 1. Saria (*Oborezko makila*) irabazi zuen Eskualzaleen Biltzarrak Lapurdiko Saran “Axular Eguna”-ren baitan antolatutako Olerki Sariketan. Berau izan daiteke, Arrospidek idazle modura, bereganatu zuen ezagutzarik handiena. *Don Juan Muxika* ezizenarekin sinatu zuen olerkia Arrospidek. Aita Onaindiaren hitzetan: “Edozein elerti-bildumatan ez letorke mergal ‘Axular-Eguna’ deritzaion poema poliki asmatu au”²³. Hirugarren ahapaldian honela agurtzen du Arrospidek Axular handia:

Agur, Axular, erritar zintzo eta mintzalle onena,

Agur, Axular, ala bearta erriko seme maitena.

Agur, Axular, euskal idazle bikañenetan irtena.

Axular, zure *Geroko gero* betiko betin aurrena.

Antzerki obra bat ere badauka Juan Arrospidek: *Meza osteko jaya*. Antza denez, saritua eta sarri antzeztua izan zena gerra aurreko urteetan, batzokietan-eta, batik bat. Edozelan ere,

²² Julen Urkizak argitaratutako *Euskal Bertso eta Olerkien Bibliografia* obra mardulean (armiarma.es), *Arrospide, Jon* sarreran 51 bertso/olerki agertzen dira zerrendaturik; baina, gure uste apalean, zerrendako lau baino ez dira Jon Arrospide Omagojeaskoa medikuarenak: “Axular-Eguna”, “Erdu neugana”, “Kirikiño ‘ri” eta “Zabala ‘tar Aingeru ‘ri”. Gainontzekoak, bat izan ezik, Donostiako *Argia* astekarian argitaratu ziren 1924-1935 urteen bueltan eta giroz, mamiz eta idazkeraz beste arrospidetar batenak direlako daukagu.

²³ Onaindia, Santi: *Euskal Literatura II*, Etor, Bilbo, 1974, 138.

ezin izan dugu informazio gehiagorik lortu kontsultatutako dokumentuetan²⁴.

Gerrak markatutako urteak

Gerra amaituta, Juan Arrospeide erbesteratu egin zuten, eta Kantabriako Corrales de Buelna herrian igaro behar izan zuen denboraldi bat. Erbesteratzea bukatu, etxerako bideari ekin zion, eta Muxikarantz doala, Bilbotik pasatzean, hara non ikusten duen semea kalean guarda zibil biren erdian zihola. Lan honen hasieran, X. idazleak Lapurdiko Getaria herritik Bartzelonako *Euzkadin* deskribatu digun egoera berberean aurkitu zuen aitak semea Bilboko kale artean: “Jon gaixua”. Kolpea itzela izango zen, ezin izan baitzuen seme maitea agurtu ere egin.

Ettxera heltzean, han topatu zuten panorama ere negar egitekoa izan zen: etxea gorri zegoen, altzariak-eta eramanda, ezinbestekoak zituen mediku-tresnak lapurtuta, urrun bizi ziren gaixoak ahalik eta arinen artatu ahal izateko erabiltzen zuen *Austin* auto txikitxo ere eramanda...:

“Ibarrurin Meumera eta joan behar ebanetan, asto burditxoan joaten zan. Honetarako ba eukan mutil gazte bat, Patxi Arbe, Ariatzako Ordoki-goikoa deitzen dan baserriko seme bizkorra. Honek, urrun joan beharra eukanetan, bere asto eta burditxoagaz eroaten eban. Gaixoak pozik hartzen eben Don Juan. Maite eben, baina berak ere maite ebazan Muxika eta Ibarruriko baserritarrak”²⁵.

Bere azken urteak Gernikan eman zituen Don Juanek, alaba Itziarren etxean, bilobez inguraturik. 1952ko maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, berak hain estimu handitan zituen

²⁴ Segundo Olaeta gernikar musikagile eta koreografoak (Gernika, 1896 - Miarritze, 1971) izen bereko dantza-ikuskizun bat antolatu zuen, “Elai-Alai” dantza-taldearekin leku askotan eman zutena. Ez dakigu obra bien artean loturarik dagoen.

²⁵ *Bizitzaren joanean*, 109-110.

baserritarren patroiarene festa-egunean joan zitzaigun mundu-
tik Don Juan. Honela laburbildu zigun Balendin Enbeitak ha-
ren bizitza eredugarria:

Maitasunagaz jokatzeko eban
Behartsuari laguntzen
Bere lanaren ordainik ere
Sarri ez zuen eskatzen
Hil ondorean Don Juan nor zan
Herriak deusku aitortzen
Nahiz ta gorputza lurra irunsi
Ekintzak ez dira galtzen.²⁶

Jon Arrospide Basabe (1900-1965)

Don Juan medikuaren seme Jon Arrospide Basabe Muxika herrian jaio zen 1900eko azaroan. Lehenengo ikasketak egini-
nik, batxilergo egiteari ekin zion, eta nota gorenekin ez ezik,
sari handi batekin ere amaitu zituen ikasketa-ertainak eta erre-
balida. Hori dela-eta, hurrengo doazen bertsoak opetsi zizkion
aitaren lagun min Kepa Enbeitak, non gazte argi eta ikastuna-
ren deskripzioa egiten digun:

Arrospide ta Basabe´tar Jon,
Aizkide zintzo ta zurra,
Eure guraso ain onak baizen
Euzko-eredu zigurra...
Gaur damostakan poz-atsegiña
Eztok izango laburra.
Arti egik, ba, biotzez eiten
Deuatan zorun-agurra.

²⁶ Ibidem, 115.

Ikastietan nausi urten dok
 Ikaste-sari ta guzti:
 Eugaz yabiltzak Jaungo-eskarra,
 Gotzon, izar ta eguzki;
 Goitik datorren iturri deunak
 I au zori onez busti:
 Ori dala-ta ikasten dozak
 Ain ondo ainbat idazti.

Guraso argi zintzoen seme,
 Aitaite onan lobia,
 Ikastun andi, euzkeldun bikain
 Ona baiño be obia;
 Euzko-baratza gurgarri baten
 Agertu intzan loria,
 Izango al az zori oneko
 Usain guztien jaubia.²⁷

Dakigunez, medikuntza-ikasketak egin zituen Jonek. Hasieran, Santiago de Compostelan, eta gero Madrilgo Complutense-n, non, 1933ko uztailean, bere doktorego-tesia defendatu baitzuen: “Los derrames pleurales en el tratamiento de la tuberculosis pulmonar por el neumotórax”²⁸. Hortik aurrera, Jon Arrospideren bizi-tza medikuntza arloan zentratuko da, ardatz

²⁷ Enbeita, Kepa: “Zorun-Agurra (Arrospide´tar Jon´i)”, in Onaindia, Santi: “*Enbeita Oleskaria*”, Itxaropena, Zarautz, 1966, 59.

²⁸ 1919-1921 urteetan Odontologia ikasketak egin zituen, eta 1921eko ekainean errebalida bikain notarekin gainditu zuen: “Durante el XI Congreso Dental Español celebrado en Barcelona en abril de 1927 [D. Juan Arrospide] presenta en colaboración con D. Pedro Mayoral y Dña. J. S. Gabarret el tema *Estudio de los antisépticos en odontología*, en calidad de profesor auxiliar de laboratorio de la asignatura de ‘Patología y Terapéutica’ de la Escuela de Odontología” (Pardo Monedero, M^a Jesús: *La Escuela de Odontología de Madrid*, Tesis doctoral, Universidad Complutense, Madrid, 2013).

legez bere espezialitatea zuela, hau da, bihotz-birikietako gaitasunak, eta, bereziki, bularretikoa (tuberkulosia), sasoi hartan oso kutsakor eta hilgarria zena. Hala ere, ez zuen saltzeko etxeko sutondoan edoskitakoa eta ikasitakoa, eta euskara sustatzen eta euskal kultura zabaltzen ahalegindu zen etengabe, betiere era anonimo eta isil bezain sendoan.

Ikasketa-lanetan tarte bat eginik, Jon Arrospide Basabe, 1929an, Miren Ugalde Izuzkizarekin ezkondu zen eta bien arteko maitasunetik sortu zen mundura Arantzazu alaba, oraintsu, 2020ko otsailaren 1ean, Getxo herrian, hil dena. Ezkontza kari, Kepa Enbeitak bost bertsoko sortatxo bat eskaini zien ezkonberriei, hor ere, arrospidetarrekiko hurbiltasuna adieraziz. Azken ahapaldia dakargu lerrootara:

Bikoitz bikain begiko,
 Urtzi maitalari,
 Goitar iruntz gozotan,
 Azitakuari,
 Gotzonak etorririk
 Jaunaren geznari,
 Damotsez goi-eskardun
 Bezuzak ugari:
 Zoruntsu izateko
 Miren ta Jon Mari.
 Nik, egiz, dopaltzuet
 Orixe berori.²⁹

Karrera amaituta, bere nota onei esker Jon Arrospidek “Aguilar Saria” lortu zuen, zeinek beka bat eskaintzen bai-

²⁹ Enbeita, Kepa: “Bikoitz Begikoa (Arrospide´tar Jon Mari eta Ugalde´tar Miren´i, euren ezkontz egunean)”, in “*Enbeita Oleskaria*, 105.

tzion Estatu Batuetara joateko ikasketa eta ikerketekin jarraitzeko. Aukera benetan bikaina, baina gernikarrak beste bide bati heldu zion, Europako aukerak (Alemania, Suitza...) baliatzeko:

“Renunció a ella [beka *Aguilar Saria*] y se trasladó a Berlín donde realizó estudios de especialización en pulmón y corazón. De allí se trasladó a un sanatorio en Suiza con el fin de realizar las prácticas necesarias para poder ejercer su profesión. Durante su estancia en Suiza conoció al Dr. Egaña quien le propuso que trabajara junto a él en el sanatorio de La Fuenfría (Madrid), sanatorio de prestigio de España en aquella época. Aceptó la proposición y trabajó en el mencionado sanatorio durante un periodo de tres o cuatro años. Mientras tanto preparó las oposiciones para ingresar en el Santo Hospital Civil de Basurto (Bilbao) y obtuvo plaza en el mismo”³⁰.

1932ko irailaren 30ean, Jon Arrospidek oposaketetako ariketak bikain buruturik, Bilboko Ospitaleko (Basurtu) Tuberkulosi saileko Klinika Buru bihurtu zen, zendu berri zen Felipe Léniz medikuaren plaza betetzeko:

³⁰ Aiestaran Á., Carlos: “San Mamés, 22 de diciembre de 1946...”, <http://www.cihefe.es/cuadernosdefutbol>. (Jon Arropideren alaba Arantzazuk 1999ko uztaillean Carlos Aiestaranekin izandako elkarriketatik).

El Dr. Arrospide obtiene la plaza de jefe de Clínica del Hospital

Tras de brillantísimos ejercicios, terminaron ayer las oposiciones que venían celebrándose para la provisión de la plaza de jefe de clínica de Tuberculosos del Santo Hospital Civil, que había quedado vacante por fallecimiento del doctor don Felipe Léniz.

El Tribunal, compuesto por los doctores Sayes, de Barcelona; Lizaguirre, de San Sebastián; Tapia, de Madrid; Díaz Emparanza, y del presidente del Colegio Médico, señor Uruñuela, concedió, por unanimidad, la plaza a don José de Arrospide, haciendo constar, asimismo, los méritos de los demás concursantes a la plaza, los cuales han dado cumplidas pruebas de su competencia.

El señor Arrospide es vizcaíno, natural de Múgica e hijo del médico de aquella localidad.

Después de hacer brillantemente sus estudios, practicó como médico agregado en la clínica que en el Hospital de Basurto dirige don Cesáreo Díaz Emparanza. Después se trasladó al Sanatorio de la Fuenfría como médico residente, donde se especializó, completando su formación científica.

Cuanto presenciaron los brillantes ejercicios del señor Arrospide, tienen puestas en él grandes esperanzas, pues a su juventud—cuenta con 31 años—, une una amplia preparación científica en su especialidad.

Reciba nuestra enhorabuena.

La Gaceta del Norte, 1932-10-01

Handik hilabetetsura, Fermin Irigarai *Larreko* mediku nafarrak artikulu bat argitaratu zuen *Euzkadin*, miresmenez, kide-tasunez eta poztasunez beterik. Izan ere, harentzat, Aberria hobetzeko, euskaltzaletzeko, goratzeko... bide desberdinak daudeke, eta Jon Arrospidek bere esparru profesionalen

–medikuntzan– lortutakoa txalogarritzat jotzen du Larrekok, euskal gizarteari begira balio handikotzat:

“¡Ori da zuk egin duzun lan ederra!

¡Ori da, aberria goratzeko artu duzun bide zuzena!

Ezpai dakit ‘La Fuenfria’³¹ ote zauden... Lauaxeta gure aizkide on-onaren baimenarekin EUZKADI barna bialtzen doztut, non zauden eta arata, ene zorion agurrik gozoena.

Badakit, argatik, zeure buruaz arturik etzaudela: ortan miñik egiñen ez dizutelakoan, emen agerrian, gogoeta batzu egin nai ditut. [...]

Lanpide edo bizipide gustietan, berdin eskulangileak nola buruz lan egiten dutenek: gure eskuko bide bat badugu etxea, sorteria eta aberria ontzeko, eta askotan bide ortarik aberria goratzeko. [...]

Orgatik zu baitan ikusi bear ginuke, aberriaren alde lan egiteko, zuk egin duzuna.

Berriz ere nire zorionak”³².

Medikuntzari emana bete-betean

Areilza doktore ezagunak 1918tik aurrera, zortzi bat urtez, Basurtuko ospitalea modernizatzen eta berrantolatzen ahalegin handiak egin zituen eta akordio bat lortu zuen Valladolideko Medikuntza Fakultatearekin mediku internoak izan ahal izateko. Era berean, Erizaintza eskola bat sortzeko gestioak egin zituen. Horrek guztiak erraztu egin zuen mediku-belau-naldi berri bat (“Los cachorros de Areilza”) Basurtuko ospitalean integratzea eta erietxea indartzea. Areilzaren inguruko talde horretan Jon Arrospide ere ikusten dugu³³.

³¹ Madrilgo eritetxe bat. Jon Arrospide mediku erresidente modura egon zen bertan, espezializazio-ikasketak egiten.

³² *Larreko*: “Arrospide ‘tar Jon sendakiñari”, *Euzkadi*, 1932-10-29, 8.

³³ “Areilza creó nuevos servicios especializados: [...] Bajo su dirección, se

Aldaketa handi hori gertatzen denean, 1924tik aurrera, Bilboko “Academia de Ciencias Médicas de Bilbao” eta *Gaceta Médica de Bilbao*³⁴ prestigiotsuek dinamika aberatsago bati ekiten diote eta profesional gazteek –euretariko batzuek Europako unibertsitatetik ospetsuenetan ikasitakoak– hartuko dute testigua. Hor ere nabarmendu beharrekoa da Jon Arrospide-ren presentzia³⁵.

1932-1933. urteak seinlatuak dira Jon medikuaren bizi-tzan. Izan ere, Basurtuko ospitaleko izendapena bereganatuta eta doktoregoa lorturik, ibilbide profesional sendo ere sendo bati eman zion jarraipena.

Jon Arrospidek kontsulta bat zabaldu zuen Bilboko Unamuno plazako bere etxebizitzan, eta han ere kontaktu pertsonal sendoa izan zuen beragana laguntza eske hurreratzen ziztaizkion gaixoekin. Ibon Uribitartek *Euzkadi* egunkarirako eginiko lau elkarrizketetan, ematen digu haren egunerokotasunaren berri, baita bularretiko gaixotasunaren inguruko

incrementó el número de médicos, lo que permitió la irrupción de una generación de galenos a la que se ha llamado “Los cachorros de Areilza”. Entre ellos, Pérez Andrés, Vicente San Sebastián, Wenceslao López Albó, Justo Garate, Juan Viar Bayo, Eusebio García Alonso, Abilio Saldaña, Julio Atucha, Julián Guimón Rezola, Juan Aranzadi, Jon Arrospide, Atilano Feijóo, Carlos Mendaza hijo, José y Manuel Salaverri Aranguren, Salvador Landa y otros varios” (<http://www.bilbaopedia.info/hospital-basurto-sanidad>).

³⁴ “Gaceta Médica de Bilbao (Gac Med Bilbao), fundada en 1894, es la revista oficial de la Academia de Ciencias Médicas de Bilbao. Es una publicación trimestral y es la decana de las revistas médicas de España. En formato electrónico, de contenido interdisciplinar (Medicina, Farmacia, Veterinaria y Sanidad Alimentaria, Odontología y Biología), se edita en inglés, español o euskera con resúmenes y palabras claves en los tres idiomas, constituyendo el máximo exponente de la calidad y pujanza de la medicina del norte de España. Asimismo, es la primera revista científica biomédica en euskera” (<http://www.gacetamedicabilbao.eus/index.php/gacetamedicabilbao>).

³⁵ <http://www.gacetamedicabilbao.eus/index.php/gacetamedicabilbao/article/viewFile/540/548>

hainbat xehetasun, jakingarri eta aholku ere, euskara osasuntsu eta pentsamendu zientifikora ondo tolestuan, betiere.



Ibon Uribitartek Jon Arrospeideri eginiko lau elkarrizketatik lehenengoa

Igande goiza da, eta astegunetan ez bezala, mediku lanpetuaren etxean beste lasaitasun bat sumatzen dela diosku kazetariak, eta, *etxe-barne bizia* deskribaturik, itaunka hasiko zaio medikuari:

“Lan-egunak itunak eta elegiak ixaten ba-dira be, jayegunak beste gauza bat dira. Jon´an jauregija jayegunetan, udabarrri biurtuten da.

Alabatxu txiki bat dau Jon´ak³⁶, guraso-bijotza samin-janzki illunetatik erantzi, ta udabarriko janzki apain alayakaz txukuntzen dakijan urre-lorea. Urre-lora oneri Miren Arantzazu deritxo.

Lan-egunetan Jon´an bijotzak bijotzeratuten dauzan bularretikodunen samin-usaṇak, alaitasunaren erruetan sorturikua dirudijan urre-lora onek uxatuten dauz. Miren Arantzazu, aitararen istarrean itsatsiko da, ta aitaren espanak berenakin batu artian, ezta andik aldenduko. Miren Arantzazutxu zolijak euskeraz egiten dau. Jon´ak euzkeraz egiten deutso. Jon´an

³⁶ Jonek, Jonen barik, Jon´ak, Jon´an idazten du Uribitartek, orduko idazle batzuen ohiturari jarraituz.

emaztiak be euzkeraz, eta euzkeraz enparauko otsenak be. Igandietan Jon´an jauregija euzko-baratza biurtuten da.

Alaitasun aldi aretan, Jon, nitzaz gomutau da. Eta istarrari oratuta daukon alabatxu kutuna, espanetaratu dautsan aita-mosu maitakor batatz bidaldu dau. Eta niri begiratubaz, olan-txe esan daust: ´Zeuk gura dozunian´.

Eta ni itantzen asi nayako. Jon, nire itaunei erantzuten.

–¿Bulerretikua zabal da Euzkadi´n?

–Bai. Eta zabalen Bizkaya´n. Emen gexo onegaz, urtian amar millatik hamasei notin-inguru ilten dira [...]»³⁷.

Gorago esan dugunez, lau ataletan eman zituen Uribitartek Jonekin hitz egindakoak. Bibliografian ditu irakurleak argitaratu zireneko data zehatzak. Handik urte batzuetara, aurreko lerroetan hain samurtasun handiz aurkezten zaigun Miren Arantzazu alabatxo horrexerri opetsi zizkion Urretxindorrek koplatxo bi umearen urtebetetze baten kariatz. Koplok, 1942an agertzen dira datatuak, hain justu Urretxindorra hil zen urtean, eta eurekin ixten da Aita Onaindiaren *Enbeita Oleskaria* liburua:

Euzko-baratzan sortu ta jaio
Ziñan Aingeru-loria...
Beti mardulik, usain gozodun
Urtzi´k zaindu ta gordia.

Onoimenezko lore bikaiñoi,
Guraso deunen inguru...
Zorun osodun nai zaituguz, ba,
Ikusi beti Aingeru.³⁸

³⁷ Uribitarte, Ibon: “Arrospide´tar Jon osatzallia eta bularretiko gexua (I)”, *Euzkadi*, 1935-05-12, 12. Han-hor-hemen emandako hitzaldi dibulgatiboetan-eta, ohikoa zuen bere arloko jakingaiak euskaraz ematea.

³⁸ Enbeita, Kepa: “Zorionak (Arrospide´tar Miren Kuruzne Arantzazu´ri bere jaiotz-urteurrenari)”, *Enbeita Oleskaria*, 159. Lerrootan zehar ikusi dugu-

Frankisten altxamendua: urte latzak

1936ko altxamendua gertatzen denean, hasierako *shock*-aren ostean, eta, batez ere, Jaurларitza berria martxan hasten denean, zirrikitu bat irekitzen da Euskal Unibertsitateari ateak zabaltzeko. Hala ere, 1936ko urrian sortu eta antolatu zen Jaurларitza berrian ez zegoen Hezkuntza Sailburutzarik, baina posible izan zen Justizia eta Kultura Sailetik Basurtuko Ospitalean Medikuntza fakultate berri baten lehenengo zimenduak jartzea. Bitarteko urrirekin, gerra anker batek mugatuta, prekariedade osoan..., baina ameslari batzuek adoretzu –Jon Arrospide barne³⁹– ekin zioten ezinezkoa zirudienari:


“Gehienek uste zuten gerra garaian unibertsitatearen inguruko eztabaidan hastea ameskeria zela, are gehiago, Euskal Gobernuan bertan Hezkuntza sailbururik ez zegoela ikusita. Baina ezusteko atsegina Justizia eta Kultur arlotik etorri zen, Euskal Irakastola Nagusia prestatzeko batzorde bat eratu baitzen. Prestaketa honetan honako hauek parte hartu zuten: Luis Bilbao, Juan Arrospide⁴⁰, Angel Apraiz eta Julia Fernandez Zabaleta. Aurrekoekin batera beste sailkide batzuk ere izan ziren: Cesáreo Díaz Enparanza, Julián Guimon, Juan Viar..., besteak beste”⁴¹.

nez, Urretxindorrak hirutan omentzen ditu bertsoz Jon eta bere familia, adiskidetasun sendo baten seinale.

³⁹ “Fakultatea sortzeko batzordeko burua Juan Arrospide nazionalista zen [...]” (Aizpuru, Mikel: *Amets baten oinordeko gara. 1936ko Euskal Unibertsitatea*, EHU/UPV, Bilbo, 2012, 127).

⁴⁰ Fakultateko irakasleak izendatzeko epaimahaian ere egon zen Jon Arrospide beste lankide batzuekin batera. Mikel Aizpuruk dioskunez, 1937ko martxotik aurrera, Jon Arrospide Basabe eta Eusebio García Alonso medikuak klaustrokideeen zerrendan agertzen dira, gerora sarturik: “Ziur aski, Higiene, Farmacología eta Medicina Legal ikasgaietako irakasleak izango ziren, plaza horiek bete gabe geratu baitziren lehenengo deialdian” (Ibidem, 132).

⁴¹http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hbas_revistas/es_hbas/adjuntos/diciembre_2006_45.pdf



1936ko abenduaren 1ean zabaldu zituen ateak Medikuntza Fakultateak

Frankistek, Bilbo hartu bezin laster, gainontzeko arloetan bezala, medikuntza arloan ere, bertan behera utzi zituzten martxan jarritako ekimen guztiak, eta kargugabetu egin zituzten arduradun nagusiak. Hola, Jon Arrospide kanporatua izan zen Basurtuko ospitaletik eta, handik lasterrera epaitua eta kondenatua. Izan ere, frankistek epaiketa kolektibo bat eratu zuten Eusko Jaurlaritzarekin lan eginiko medikuak zigortzeko:

“El 17 de julio de 1937 se celebró en Bilbao un juicio agrupado contra once médicos que trabajaron como tales para la administración republicana: Manuel Alonso, Julio López Luzuriaga, Manuel Goikoetxea, Juan Arrospide, José Salaverri, José Escudero, Ramón Belaustegigoitia, Rodrigo González Pinto, José Gutiérrez Alonso, José Landeta y Luis Goiri. Las penas que pidió el fiscal estuvieron entre los seis y los doce años de reclusión”⁴².

Hortxe daukagu artikuluko lehenengo lerroetan ikusi dugun Jon: jazarria, behin eta berriz atxilotua, gizatasunik gabe tratatua, ondasunak kenduta... Hortik aurrera, gurtze-bide gogorra hasi zen Jon eta familiarentzat, baina mediku jatorrak lanean jarraitu zuen, gogotsu jarraitu ere:

⁴² Egaña, Iñaki: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria 1936-1940*, Txalaparta, Tafalla, 2009, 222.

“Jon sarritan sartzen eben kartzelan. Sartu-urten bakoi-tzean diru zati bat kendu eta bitartean amenazua ugari. Noiz edo noiz gure Jon aske itzi eben, baina eukazanak kenduta. Bere eginbeharretarako hara-hona erabili behar eban berebila ere eroan eutsoen. Bilbon, Basurtuko gaixo-etxean eukan kargutik kanpora itzi eben eta ez eukan bertan sartzerik. Baina Jon osagile eta gizon legez ospe haundikoa genduan. Herriak maite eban eta gaixoak ba ekien Jon errukior, apal eta kontzentzi haundikoa zana. Beragana joazan gaixoak oso maitaki eta apal hartzen ebazan. Txiroa bazan, esku zabal agertuko jakon”⁴³.

Hurrengo urteetan, badakigu kontsulta medikoa Bilboko Gordoniz kalean izan zuena eta Miranda de Eboko erietxean jardun zuena, bularreko gaixoak artatzen eta laguntzen⁴⁴. Erietxeari “Nuestra Señora de Begoña” zeritzon eta La Rinconada herrixkan zegoen, antzinako balneario baten kokatuta⁴⁵.

Esan beharra dago, garaitsu horretan, 40ko hamarkadan, ikerketa eta lan asko egin zirela mundu zabalean bularretiko gaixoen egoera hobetzeko eta sendaketa lortzeko. Hola, 1944an, Selman A. Waskman⁴⁶ *estreptomizina* antibiotikoa liberatu zuen New Jersey-ko unibertsitatean, hurrengo aurrerapen guztien oinarria izango zena. Azkenean, 1951n, New Yor-

⁴³ *Bizitzaren joanean*, 108-109.

⁴⁴ Maria Dolores Basterretxea Santiago gernikarraren testigantza: <https://ahotsak.eus/gernika-lumo/hizlariak/maria-dolores-basterretxea-santiago/>.

⁴⁵ “Dos años después de finalizada la guerra, Fuencaliente pasó a ser Sanatorio Antituberculoso “Nuestra Señora de Begoña, S.A.”. [...] El sanatorio, que abrió en 1944, contaba con 91 habitaciones cuya tarifa oscilaba entre 38 y 68 pesetas diarias. Debido al éxito obtenido, se realizaron diversas mejoras como la construcción de una galería nueva. El año 1956 fue el último para este sanatorio que se había quedado desfasado en sus instalaciones” (Askoren artean: *Historia de Miranda de Ebro*, Ayto de Miranda de Ebro/Nuclenor, Miranda de Ebro, 1999, 298).

⁴⁶ 1950eko maiatzaren 3an, Bilboko Zientzia Medikuen Akademiak *Obo-rezko Presidente* izendatu zuen Selman A. Waskman. Gerora, 1952an, Sue-diako Akademiak Medikuntza Nobel saria eman zion ikerlariari.

keko “Sea View Hospital”-en *hidracida* izeneko botika lortu zuten Selikoff eta Sobitzek ikerleek, *estreptomizina* baino hoge aldiz eraginkorragoa zena. Jon Arrospide ez zen nazioarteko ikerketa giro horretatik aparte, eta, 1951n bertan, Hoffmann-Roche farmazia-laborategiek Jon Arrospideri eskaini zioten medikamentu berriaren jarraipena egiteko Bizkaian. Praktika etengabea oinarriturik, *hidracidari* buruzko lan garrantzitsu bat argitaratu zuen Bilboko “Gaceta Médica del Norte” aldizkari prestigiotsuan, ondorioak espezialitateko medikuei helaraziz.

Esan beharra dago, botika berriok agertzean, hilkortasuntasa nabarmen jaitsi zela mundu zabalean, eta etapa berri bat zabaldu zela gaixotasun anker horren tratamenduetan.

Euskal kulturaren alde: isilpean, irmo

Gerra osteko urte latz eta arazoz beterikoetan, Joan Arrospidek ez zuen alde batera utzi gurasoengandik hartutako euskaltzaletasuna, eta, ahal izan zuen guztietan, ahaleginak egin zituen euskal kulturaren eta euskararen aldeko ekimenak eta proiektuak sustatu eta laguntzeko; isilpean, diskrezioz, baina irmo eta eskuzabal beti: “Arrospide jaunak ba eban beste alderdi bat be, ixildu eziña: bere euskal-zaletasuna. Jaungoikoak eta berak bakarrik dakie zenbateri eskeiñi eutsan laguntasuna euskal gauzetan lan egiteko”⁴⁷.

Jonek berebiziko txera zion *Anaitasuna* aldizkariari, Bilbon, 1953an, frankismo gorrian jaiotakoari, eta ahal izan zuen guztian lagundu zien Aita Imanol Berriatuari eta lankideei aldizkaria aurrera atera ahal izan zezaten:

“Maite eta ezagututen ebazan euskal aldizkariak eta euren alde sendo ta zintzo lan egin be bai. ANAITASUNA aldizkari onek berba egiterik baleu, Arrospide-n alde zeozer esan bear-

⁴⁷ X.X.: “Arrospide-tar Jon-en oroimenez”, *Anaitasuna*, 1966/martia, 1.

ko leuke. Arrospide-k ba ekian ANAITASUNA-ren barri; ta ain txiki, errikoi, ariñ eta pitxi ikusiaz, grazi emoten eutson seguru, aittitte zartxo bateri loba txikienak emoten deutson lez. Orregaitik maite ta zabaldu eban hainbeste”⁴⁸.

Aipagarria da, era berean, Jonek EDILI argitaletxean izan zuen partaidetza zuzena. Argitaletxea 1960an sortu zen, behar gorria zegoelako urte haietan euskal liburuak kaleratzeko eta banatzeko. Boskote bat dago proiektu garrantzitsu horren atzean: Castor Uriarte arkitektoa, Jose Ezpeleta enpresarioa, Bernardo Mesanza ingeniaria, Fernando Zubizarreta eta Jon Arrospide medikua. Jesus Atxa Agirre ere aipagarria da, 1961etik aurrera arduradun nagusi izan zen-eta. Elkarateak hamaika lan eta ekimen hartu zuen bere gain: ikastoletarako testugintza, itzulpenak...; Durangoko Liburu Azokaren sorrera; liburu- eta aldizkari-banaketa; musika eta diskogintza; haurrentzako filmak...⁴⁹. Unean uneko erantzunak behar ziren eta euskaltzale sutsu batzuk han izan ziren, nagirik gabe, lanerako prest, eskuzabal.

“Fraternidad Cristiana” izeneko taldearen inguruan ere ikus daiteke Jon Arrospidek lagun hurkoarekiko eta bere buruarekiko zeukan konpromezu erlijioso eta etikoa. 50eko hamarkadan Andrés de Mañarikuaren bueltan gauzatu zen taldea, baina eragileak gehiago izan ziren: Andres Aya Goñi, Eduardo Aya Goñi, Jon Arrospide... Euren asmoen berri liburuxka batzuen bidez zabaldu zuten:

“Haien edukia, elkartasun-izaera handia zuen erlijiozko praktika bide berri bat zabaltzen saiatzen zen profesional liberalen artean. Erlijio praktika pertsonal eta asozial soilak asetzen ez zituen medikuak, abokatuak, ingeniariak, enpresariak, en-

⁴⁸ Idem.

⁴⁹ Perez Urraza, Karmele/ Ezkurdia, Gurutze/ Bilbao, Begoña: “*Aurtxoa eta Aurtxoa II silabategiak*”, in *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omen-duz*, UPV/EHU, 2018, 13-25.

plegatuak, etab. ziren. [...] Kristautasunaren dimentsio *horizontala* bultzatu nahi zen, maitasun unibertsaleko aginduaren eta garai apostolikoetako praxiaren aginduari jarraituz”⁵⁰.

Aita Onaindiak esaten digunez, Jonek gerra osteko urte hitsetan hamaikatxo ahalegin egin zituen Bilboko eleizetan euskarazko mezak lortzeko, bere moduko euskaldun asko eta asko umezurtz sentitzen baitziren giro itogarri, kolore bakarreko eta itxi hartan. Sinesmena eta euskaltasuna batzeko ahalegin eskergarriak, zinez.



Jon Arrospide Basabe

⁵⁰ Larrea, M^a Angeles: *Andrés E. de Mañaricúa Nuere*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997, 16.

Badago Aita Santi Onaindiaren *Eskutitzak* izeneko liburuan gutun labur bat Jon Arrospideren izaeraren tamaina ematen diguna. Jon medikua New Yorkera joatekotan dago bere lanbideko betebeharrak Atlantikoz beste aldera bultzatuta. Baina Jon gogoratzen da, kanpoan egongo den egun horietan, Zor-notza-Larrean Olerti-Eguna ospatu beharra zutela urtero bezala. Eta bertan egoteko ezintasuna adieraziko dio Aita Onaindiari, baita sariren bat emateko diru-laguntza bat agindu ere. Bazekien, Jonek non zeuzkan sustraiak, bazekien gorantz eta zabaletarantz aireratzen jakinduriaren abarrak. Hona hemen, gutuntxoa:

“Neure adiskide maite: Ordu lauren bat barru, artuko dot egazkiña New-York´era juateko. Amerika´tik izango naz datorenen illian, amabian.

Euskal jaien bat egiten badozue egun orretan, igez esan zan legez, artu zazu neure alde z milla laurleko, sari batentzako.

Urrijaren emeretzian egongo naz Bilbao´n (J.1.), eta bialduko dautzudaz laurleko orrek.

Gorantziak euskeltzali entzat.

Zure adizkide dan Arrospide´tar Jon”⁵¹.

Jonen alaba Arantzazuk informazio eta xehetasun interesgarri gehiago damosku Carlos Aiestaran Alvarez emaniko elkarrizketan:

“Médico de la plantilla del Athletic Club de Bilbao y socio de honor del mismo. Autor de numerosas comunicaciones y ponencias como consecuencia de su participación en congresos internacionales sobre corazón y pulmón (Estados Unidos, Alemania, Dinamarca, México, etc.). Durante su estancia en el congreso de México, los americanos le impusieron la Medalla de Honor de la American Chest, convirtiéndose en miembro

⁵¹ Onaindia, Santi: *Eskutitzak*, Bilbo, 1974, 198.

de la misma. Fue, así mismo, colaborador de innumerables revistas médicas, entre ellas, la prestigiosa publicación científica *Gaceta Médica del Norte*⁵².

1965eko martxoaren 8an, Euskal Herria diktadura peko amets gaiztotik, apurka-apurka, esnatzen eta jaikitzen hasten denean, pausatu zen Jon Arrospide Basabe jauna, artean sasikoa zela 64 urte baino ez eta zer eman handi ere handia zeukala. Hurrengo egunean Bilboko Karmengo eleizan izan ziren hileta-elizkizunak eta, jarraian, gorpua Gernikako kanposantura eramán zuten. Balendin Enbeitak honela agurtu zuen Jon laguna:

Frutu onen emoil
genduan zugaitzak,
danentzako zituan
bardin bere emaitzak;
sasoirik onenean
bere eriotzak
tamalez jarri gaitu
txiro ta aberatsak.

Osalarí lez aundi,
geiago gizona,
borondatez indartsu,
maitasun sakona;
neurri bako ongille,
apal ta zuzena,
ezin leike azaldu
bere nortasuna.

⁵² Op. ct.: Arantzazu alabaren 1999ko elkarrizketatik.

Baserri eta kale
 mar-mar bardiña da,
 tamalez askok diño:
 “Arrospide il da!
 Amaikatsu mesede
 egiñik jua da!
 Bera lango gizon bat
 izango ete da?”.

Itxi dozuz munduko
 zeure arazuak,
 emazte, sendi, lagun,
 senide, auzuak;
 zeruetan daukazuz,
 zabalik besuak,
 aurretik jua ziran
 zeure gurasuak.

Agur, Jon Arrospide,
 agur, agur t´erdi!
 Zeru goietan Jaunak
 atsedendu bedi!
 Irakatsi eder bat
 badogu zugandi:
 beti zaindu dozula
 egian alderdi.⁵³

⁵³ Enbeita, Balendin: “Arrospide osalaria zanari”, *Nere apurra*, Auspoa 117-118, Tolosa, 1974, 227-228.

Jon mundutik joan eta handik hamabi urtera, 1977ko otsai-lean, Jonen familiak dohaintza garrantzitsu bat eman zion EHUri, eta horri esker, “Joan Arrospide Basabe Doktorea Fundazioa” sortu zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen baitan sortu ere, helburu nagusitzat irakaskuntza eta ikerketa zituen.



Jon Arrospide kalea, Bilboko Deustu auzoan

Bilboko Udalak 1980ko ekainaren lauan, osoko bilkuran, Bilboko Deustu auzoko kale bat Jon Arrospide Basaberi opes-tea erabaki zuen, haren meritu profesional eta humanoak aintzatzat harturik.

Agur eta ohore!

Bibliografia

- *ABANDOTARRA*: “Arrozpide-tar Jon il yaku”, *Euzko Gogoia*, 1952, 3/4, 49-50.
- *AIZPURU*, Mikel: *Amets baten oinordeko gara. 1936ko Euskal Unibertsitatea*, EHU-UPV, Bilbo, 2012.

- ANAITASUNA: “Arrospide-tar Jon-en oroimenez”, *Anaitasuna*, 1966/martia, 1.
- ARROSPIDE, Juan: “Zabala´tar Aingeru´ri”, *La Patria*, 22, 1902-03-23, 2.
- “Mungia´ko gudaldija´n”, *La Patria*, 27, 1902-04-27, 4.
- “Erdi neugana”, *La Patria*, 29, 1902-05-11, 3.
- “La Juventud Vasca. Mitin en Mungia”, *Patria*, 61, 1904-09-24, 2/5.⁵⁴
- “Kirikiño´ri”, *Euzkadi*, 1922-10-10, 1.
- [“Itxartu da Bizkaia”], in *Bizitzaren joanean*, 118-119.⁵⁵
- “Edurra´ri, in *Bizitzaren joanean*, 119-120.
- “Oiz mendi”, in *Bizitzaren joanean*, 121-122.
- “Axular-eguna”⁵⁶, in *Karmel Egutegia* 3, 1953, 74-75 // Onaindia, Santi: *Euskal Literatura II*, Etor, Bilbo, 1974, 136-138.
- “Meza osteko jaia”, Antzerki lana (lan saritua eta askotan antzetzua).
- ARRUZA, Mikel: “Ume txikien arduratzaz. Bilbao´ko Arrospide Jon jaunarekin izketaldia”, *Zeruko Argia*, 1963-10-27, 6.
- BUSTINTZA, Ebaristo *Kirikiño*: “Gixon ixil bat aitatu”, *Euzkadi*, 1922-10-04, 1/3.
- ENBEITA, Balendin: “Goian Bego”, *Karmel Egutegia* 4, 1954, 38.
- “Arrospide´tar Jon il jaku”, *Anaitasuna*, 1966-martia, 7.

⁵⁴ Artikulua orrialde bitan ematen da (2, 5). Erderaz daude testuak, baina Juan Arrospideren testuaren hasieran beren-beregi esaten da “Este [Señor Arróspide] pronunció un discurso magistral en euzkera, como todos los suyos”.

⁵⁵ “Axular-Eguna” bertso-sortari dautsola agertzen da sortatxo hori, izenbururik gabe. Metrikaz eta mamiz zeharo bestelakoa. Lau zortziko txiki dira.

⁵⁶ 1925-09-17an, Lapurdiko Saran, Eskualzaleen Biltzarrek antolatutako Olerki Sariketan 1. saria (Ohorezko makila) merezi izan zuena.

- *Nere apurra*, Auspoa 117-118, Tolosa, 1974.
- : *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986.
- ENBEITA, Jon: *Enbeitatarrak I, II, III*, Sendoa, Oiartzun, 1999/2000.
- ENBEITA, Kepa *Urretxindorra*: “Zorun-agurra (Arrospide´tar Jon´i)”, 1916, in *Enbeita oleskaria*, 59.
- “Bikoitz begikoa (Arrospide´tar Jon Mari ta Ugalde´tar Miren´i euren ezkontz-egunean)”, 1929, in *Enbeita oleskaria*, 104-105.
- “Zorionak (Arrospide´tar Miren Kuruzne Arantzazu´ri bere jaiotz-urteurrenien), 1942, in *Enbeita oleskaria*, 159.
- “Enbeita´k bere maixuari”, *Euzkadi*, 1922-10-11, 1.
- “Ongillei eskarra”, *Euzkadi*, 1929-12-26, 1.
- GONDRA, Juan / VILLANUEVA, Antonio: *Los Hospitales Civiles de Bilbao. Homenaje al Hospital de Basurto en su centenario (1908-2008)*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2008.
- LARREKO: “Arrospide´tar Jon sendakiñari”, *Euzkadi*, 1932-10-29, 8.
- ONAINDIA, Santi: *Milla euskal-olerki eder*, Karmeldar Idaztiak, Larrea-Amorebieta, 1954.
- *Enbeita Oleskaria*, Itxaropena, Zarautz, 1966.
- *Gure Urretxindorra*, Ekin, B. Aires, 1971.
- *Euskal Literatura II*, Etor, Bilbo, 1974.
- *Eskutitzak*, Gráficas Bilbao, Bilbo, 1974.
- *Bizkaiko olerkariak*, Larrea-Amorebieta, 1990.
- SAN MARTÍN, Juan.: *Escritores Euskéricos*, LGEV, Bilbo, 1968, 39.
- URIBITARTE, Ibon: “Arrospide´tar Jon osatzallia eta bularretiko gexua, I/II/III/IV”, *Euzkadi*, 1935-05-12/19/26 // 1935-06-02.

- VILLANUEVA EDO, Antonio: *Historia Social de la tuberculosis en Bizkaia, 1882-1958*, Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura Saila, 1989.
- X.: “Gethary-Lapurdi´tik Euzkadi´ko izparrak”, *Euzkadi*, 1938-11-27, 4.
- XARRITON, Piarres: “Medikuak Euskal Literaturan”, *Euskalingua*, Mendebalde Kultura Alkartea, 2008.

Galdakaon, 2020ko urriaren 11n
Iñaki Sarriugarte Irigoien